

# Santa Marina plaza eta inguruak (I)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

**A**tal berri honetan Patrue kale, Santa Marina plaza, Moiuia eta egungo Lope Agirre kaleei buruzko xehetasunak azalduko dizkizuegu. Kale Zaharrarekin eta Kale Barriarekin batera, Santa Marinak egituratu zuen Oñatiko hirigune historiko zaharra. Erdi Aroaren hondarrean agertzen zaigu jada herriari buruzko idatzietan; hainbat bider aipatu dugun 1488ko erreketaren ondorengo dokumentuan, hain zuzen ere. Ordurako etxe-multzo garrantzitsua edukiko zuen, dirudienez, agiri horrek auzo horretan 96 familia bizi zirela erakusten baitigu. Seguruena aurreko mendeetan ere izango ziren eraikinak inguru horietan.

Alabaina, ez zaigu antzinako garai haietako aztarnarik geratu, sute beldurgarri hark dena kiskali eta hondatu zuelako, agian. XVI. gizaldiak ere ez zigun arrasto gehiegi utzi; Patrue kalean zerbait. Gaur egun goiko plazan ikus ditzakegun etxe dotoreak XVII. mendean geroztik jasoak ditugu, aurretik zeudenak ordezkatu ondoren. Alderdi horri izena ematen zion Santa Marinaren ermitak, berriz, XIX.era arte iraun zuen.

## SANTA MARINA ERMITA

Esan bezala, auzo honi bere izena luzaroan han kokatu zen ermitatik datorkio. Berau Santa Marina birjina eta martiri klasikoari eskainia zegoen, Euskal Herriko beste hainbat tokitan legez. Iñaki Zumaldek Oñatiko historiaz idatzi zuen monografian (1957) dioenez, ermita honen gaineko lehen albistea paperetan 1505ekoa du. Baina zaharragoa izango zen, zalantza barik. Urte batzuk lehenago, besteak beste, Juana Arriaran alargun oñatiarra ermitako serora genuen Santa Marinan; eta handik joan zen XV. mendean amaieran Arantzazura, Errodrigo txo Baltzategikok topatu berri zuen amabirjinaren irudiarentzat jasotako lehenengo elizatzaren arduradun gisa.

San Antonenarekin batera, Santa Marinaren hau izango zen kale-gune aldean zegoen ermitarik garrantzitsua. Inoiz parroki moduan ere erabili omen zuten Zumalderen arabera; eta XVI.aren hasieran hantxe elkartzen omen ziren alkatea eta auzotako ordezkariak. Hori dela eta, tamaina eta edukiera handi samarra edukiko zuen. Galiziarra ei zen santa honen omenez ermitan gordetzen zen elementu inportante baten edertasunak ere horixe pentsarazten digu. Izan ere, herri-eskolak orube hartan erakitzeke, ermita bera 1864an eraitsi zuten arren, barruko erretaulak beste leku batzuetara eramanez baitzituzten.



Oñatiko Historia eta Arte bilduma

Parrokiako Santa Marinaren aldareko erretaula.

### • SANTA MARINAREN ERRETAULA

Santa martiri honen erretaula 1593an berritu zen. Urte haietako joerari jarraituz, estilo erromanista sotil eta dotorean taxutu zuten. Hiru kale eta atikoa ditu; ezkerrekoan bi irudi txiki samar ageri dira: San Juan eta Santa Katalina; eskumakoak beste bi: Asisko San Frantzisko eta Santa Barbara; erdikoan irudi bakarra eta askoz handiagoa: Santa Marinarena alegia; honen gaineko atikoan Andra Mari Sortzez Garbiaren imajina; eta goieneko frontoitxo-triangeluan Aita Eternoarena dirudiena. Ezker-eskuin Lazagarra leinuaren armarria ageri da margotuta. Agian, ermitaren patroiak genituen XVI. gizaldian, gerora Areizagatarrak izan ziren moduan.

Santa Marinaren aldarerako moldatutako erretaula bikain horri gorabehera oso ibiltariak tokatu zaizkio. Ermita 1864an bota ondoren, erretaula parrokiara ekarri zutenean, San Migelko nabe nagusiaren eskumako hirugarren zutabe borobilari erantsi zioten, bertan dagoen erdi ezabatutako izkribu batek adie-

razten digunez; hura, ordea, behin-behineko kokalekua izan zuen, 1886an ezkerreko nabe-barrenera aldatu baitzuten, eta guk hantxe ezagutu genuen mutiko-garaian; azkenik, 1950 hamarraldia-**ren erdi aldera**, Reyes Kostegiren alkatetzaren lehen urteetan parrokiaren hainbat aldakuntza sakon egin zen sasoi hartan, **orain aurkitzen den tokian jarri zuten**: eliza horretako klaustroaren leiho baten ondoko hormatarz bati itsatsita.

#### • SAN MARKOSEN ERRETAULA

Iñaki Zumalderen *Historia de Oñate* liburuak dakarrenez, Santa Marinako ermitan bazen **beste erretaula bat ere: San Markos ebanjelariarena**, hain zuzen. Santu horren egunean, apirilaren 25ean, San Migeleko **kabildo**a prozesioan **igotzen zen ermitaraino eta herritarrak ere parte hartzera behartuak zeuden**; joan ezean, erreal bateko isuna pagatu behar izaten zuten. Santa titullarraren aldre aurrean erreberentzia eginik, **San Markosen aldarean ematen zuten meza**. Santu honek bazuen baseritarren egutegian txoko jakin bat: *San Jurgi* (apirilaren 23a) *artuak ereitteko goizegi*; *San Markos* (apirilaren 25a) *ereindda balegoz*. Tarte laburra eta estua, benetan. Oñatin, derrigorrean, santu bion egunak, prozesio eta guzti, ospatu beharra zegoenez gero, 24an lan ugari pilatuko zitzaizen nekazari.

Ermitako kanpaia eta San Markosen erretaula orduantxe eraikitzen ari ziren Urrutxu aldeko **hilerri berriko kaperara eraman zituzten**. Kanpaiak han jarraitzen du, baina erretaula duela urte batzuetako erreforman kendu zuten.



Santa Marinako *Baruekoa* etxea ezkerreko aldea aldatu aurretik.

Konturatzen gara Kale Barriko eta Atzeko kaleko dendak, tabernak eta gainontzekoak aipatzerakoan, hutsuneak edota akatsak egon daitezkeela. Ez zen gure asmoa esparru hori agortzea, gaira hurbilketa bat egitea baino. Bestalde, aldizkari honetako 282. zenbakiko lanean adierazten genuen bezala, Kale Barriari [KB] sartzen genituen garai bateko Zuazola eta Martzelino Zelaia [MZ] kaleak, baina ez Lazarraga eta Maria Irizar kaleak; eta Atzeko kalean [AK] Ramon Irizar [RI] eta Arantzazuko Ama [AM] kaleak, baina azken hau Portalekuraino bakarrik. Dena den, eskerrik asko erakutsi duzuen interesarengatik.

  
**TABERNA • JATEKETA**  
 Bidebarrieta 6  
 Tel.: 943 71 62 96  
 20560 OÑATI

**FAGOR**  
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



# Santa Marina (II)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Auzoari izena eman zion ermitari buruz jardun eta gero, plaza eta inguru horretako beste xehetasun interesgarri batzuk aipa ditzagun. Eta hasteko, gaur egunera arte, zenbait aldaketekin bada ere, iritsi zaizkigun **eraikin bikain batzuen berri emango dugu**. Santa Marinako plaza bera inguratzen eta itxuratzen, ondorengo hauek ditugu:

## ANTIXENA

Jauregi honek, Madinabeitiarekin batera, Santa Marinako plazaren hegoaldea ixten du, baina ez era zuzen eta jarraituan, baizik eta **angelu bitxi eta dotore bat osatuz** eta, aldi berean, Gerriko kantoi aldera beherantz doan kalejatxoari pasabidea emanaz. Eraikin horien teilatuetakoa hegala zabal eta landuek ia elkar ukitzen dute. Plaza aldetik begiratuta ezkerrekoa dugu Antixena eta eskumakoa Madinabeitiarena.

Egungo Antixenak XVIII. mendeko **egitura** ageri du bere zola errektangularran: aurreko aldean, ateburu luzeko sarrera, balkoiz betetako lehen solairua, eta leihoak bigarrenean; ate gainean **Antiatarren armarritzar barroko ikusgarria**. Etxe osteko lorategira begira, berriz, eskuma aldean **arku-ilarak** dauzka beheko eta lehen solairuan eta balkoiak bigarrenean; ezkerreko aldean, balkoiak eta leihoak. **Barruko aldeak nahiko ondo eutsi dio bere nortasunari**, jatorrizko behebarru, eskailera eta gelekina.

Lehenengo solairutik lorategira harrizko eskailera luze batetik jaisten da. Itxia eta **privatua zen jardina publiko bilakatu da azken urteotan**; berau Santa Marina eta Kale Barria arteko beste pasaleku bat dugu oinezkoentzat. Lorategian arbolak gutxitu dira, baina bi urputzuren (*posaeren*) lekukoak geratu zaizkigu. Albo batean zaldi-kotxeentzako zegoen aterpe-lekua, handitu eta hainbat erabilera izan ondoren, Gaztetxea da orain.

Antia abizena etxe horretako leinuan txertatu aurretik, **Urtazatarrak** genituen hango maiorzakoak. Eta Antiatarren ondorengoen artean **Hurtado de Saratxo, Martínez de Morentin** eta **Altunatarrak** aurkitzen dira; denak senideak, noski. Horregatik *Saratxorena* ere deitu izan zaio. Ez da familia horretako kideen artean agintari eta kargudunik falta izan: adibidez, **Asensio Urtaza**, XVII.eko alkate famatua, edota **Santos Antia**, Orbaizeta (Nafarroa) eta Sargadelos-eko (Lugo) arma-fabriketako zuzendaria. Duela hamarkada batzuk, unibertitate zaharrea Lege Soziologiako Nazioarteko Institutua jarri zenean, erakunde horretako zuzendari, irakasle eta ikasleen egoitzatarako egokitu zuten Antixena, jatorrizko bere tankerari eutsiz.



Moiua etxea 1980 aldera.

## MADINABEITIA

Antixenak ez bezala, Madinabeitia **jauregiak birmoldaketa sakinak izan ditu barruko aldetik** gerra osteko hamarkadetan. Lehen familia bakar baten egoitza zen eremuan hainbat etxebizitza egokitu dira. Gainera, Lope Agirre kale aldera ere aspalditxotik erantsitako etxeak dauzka, multzo irregular samarra taxutzen duelarik.

Dena den, kanpoko aldetik mantendu du XVIII.eko itxura, zenbait xehetasun aipagarriekin. Fatxada nagusian, harlanduz moldatuta, **puntu erdiko ate nasaia** azaltzen da; lehenengo nahiz bigarren solairuak zortzi balkoik apaintzen dituzte; goialdeko bi balkoien artean etxeari izena ematen dion deituraren **armarri barrokoak** honako izkribua ageri du behean: “ARMAS DE LA CASA SOLAR MADINA VEITIA. 1793”. Alboko fatxadan ohiko balkoi eta leiho batzuk ez ezik, “**loggia**” erako **bi arku handi-zabal** ere agertzen dira goiko partean.

Etxe horretan jaio ziren hainbat pertsonaia ezagun: besteak beste, **Emeterio Madinabeitia**, XIX. gizaldiko alkate oñatiarra, bere bizileku aurrean Santa Marinako herri-eskolak eraikiarazi zituen, ermita eraitsi ondoren; eta Emeterioren bi seme mediku eta politikoa ospetsu: **Juan** eta **Jose Madinabeitia**, deitura horren oihartzuna Oñatitik at zabaldu zutenak, hurrengo atal batean zehatzago adieraziko dugunez.

## MOIUA

Eskoletara so eginez gero, ezkerretara geratzen den eraikina deitzen zen horrela. Gaur egun, ordea, Kultura Etxea gisa ezagutzen dugu. Ateburuko datak erakusten duenez, 1860. urtean jasoarazi zuten **Jose Moiuia Lengaran** eta bere aita **Domingo Moiuia Galdos** jaunek. Jose merkataria zen eta Domingo nekazaria eta ondasun askoren jabea.

Etxe horretatik hurrean **San Juan ebanjelariaren ermita** zegoen, Pedro Puerto Hernani, Unibertsitaterako katedradun ospetsuaren aginduz XVI. gizaldian eraikitakoa. **Ermita horren harrizko ate-**

burua, inskripzio luze batekin, Moiuatarren etxearen sotoan aurkitzen zen eta, azken obrak burutzerakoan, kultura etxeko lorategian kokatu zuten.

Etxea Garaitarrek erosi zuten, eta bertan bizi izan ziren Juan Garai Mendia eta bere familiakoak gure goguenan. Geroago, 1980 hamarkadatik aurrera, ordurako udalaren jabetzakoa izanik, hainbat zerbitzu publiko atondu ziren eraikin horretan. Hasiera batean, aparteko egokitzapenik egin gabe, udaletxea aldatu zen hara Foruen Enparantzako kontzejua obretan egon zen bitartean. Hauek amaitzean, 1984.ean lehenbiziko kultura etxea egituratu zen bertan: liburutegia, fonoteka, hitzaldi-gela, Oñati Irratia, Kontzejupetik aldizkaria eta abarrekin.

XXI. mendearen hastapenean, eraikina barrutik erabat hustu eta gaur egungo kultura etxearen instalazio berriak prestatu zituzten, Angel de la Hoz arkitektoaren proiektuaren arabera: liburutegi nagusia, haurrena, zine-aretoa, erakustokia eta beste gela batzuk daude bertan. Kanpotik lehengo itxura mantendu du, aurreko eta atzeko miradore politekin.

## BARUEKUA

Plaza eskuin aldetik mugatzen duen eraikin luze honek jasan du, bai, aldakuntzarik XX. gizaldian. Hasieran, etxe bakar gisa, Areizagako baroiaren egoitza izan zen XVII-XIX. mendeetan. Hor-tik datorkio, jakina, *Baruekua* izena etxeari. Areizagatarrek Urretxuko jauntxoak ziren, baina Oñatin ere bazituzten ondasunak eta interesak. San Migel parrokan ere ikus daiteke haien izena idatzita, Santa Marinaren erretaula 1864an eliza nagusi horretara eraman zutenean, ermitaren patroia moduan agertzen direlako. Xabier Munibe, Peñafloidako konde famatua, 1747an Oñatiko parrokan Maria Josefa Areizaga, baroiaren alabarekin, uztartu zelarik, Baruekuan sinatu zuten ezkontza-kontratua.

XX. gizaldian bilakaera gorabeheratsua izan zuen: lehenengo urteetan Nevers-ko moja frantsesek okupatu zuten etxearen zati



Antixena eta Madinabeitia jauregiak 1980 aldera.

bat. Gerra ostean Goribar, Torreauzo, Garibai eta Larrañako arotz batzuek tailerra ipini zuten etxepean; elkarrekin hasieran, bakoitza bere aldetik gerora. Bitxikeria moduan esan dezagun aroztegi horietako batzuetan gauzatu zela 1954-1955ean Oñatin egin zen zurezko OKU belodromoa, Reyes Korkostegi eta Bizen-te Ugarteren ekimenez.

Sasoi bateko jauregiak, tamalez, ez zuen iraun, ezta kanpotik ere, jatorrizko eitearekin: goiko erdialdea eraitsi eta estilo nahiz altuera desberdineko etxebizitzak jaso ziren 1970 aldera, plaza-ren batasun estetikoak desitxuratu. Botatzeko geratu den zatian azpimarratzekoak dira puntu erdiko arkua duen atea plazarantz, eta XIX.eko bi arku-ilara neoklasikoak bidegurutze estu horretan.

\*\*\*\*\*

Badira kale ugariaren elkargune den plaza garrantzitsu honetan nabarmentzea merezi duten beste hainbat eraikin eta elementu: esate baterako, eskolak, iturria edota idi-probetarako harriak. Hurrengo kapituluan mintzatuko gara horietaz.

  
**TABERNA • JATEKUA**  
 Bidebarrieta 6  
 Tel.: 943 71 62 96  
 20560 OÑATI

**FAGOR**  
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA 

# Santa Marina (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

**G**oiko plaza eder honekin jarraituz, Santa Marinaren nortasuna aspalditxotik nabarmentzen duten beste bi eraikin garrantzitsuren gorabeherak eta ezaugarriak azpimarratuko ditugu gaurkoan: eskolak eta iturria.

## ESKOLAK

Aurreko batean ermitari buruz aritu ginenean, Santa Marina izeneko elizatxo klasikoa bota eta orube hartan **mutikoentzako herri-eskolak** eraiki zirela esaten genuen. Hori **1864an gertatu zen Kasimiro Gerrikoren alkatetza-denboran**. Obrak urte pare batean burutu zituzten, **Pedro Belaunzaran arkitekto ezagunaren proiektuaren arabera**; Urrutxu aldeko kanposantu berriaren planoak ere orduantxe taxutu zituen Belaunzaranek. Harrezkero, aldaketa askorekin bada ere, ikastetxe desberdinak egon dira gaur egunera arte Santa Marina plazako goiko alde horretan.

XIX. mendean mutikoentzako eskoletarako ez ezik, irakas-kuntza mailako **beste zeregin batzuetarako ere baliatu ziren ikastetxe hartaz** haurren ohiko klase-orduetatik kanpora: helduen eskola 1868an; domeketako eskola 1884an; gau-eskola 1885ean; marrazketa-akademia 1886an; musika-eskola 1887an. Egia esan, bestelako erabilera horietako batzuek ez zuten luzaroan iraun.

XX. gizaldian **historia oso gorabeheratsua** izan zuen Santa Marinako eskolak. Erlijioso maristak itxi berria zen unibertsitate zaharrera Frantziatik 1903an etorri zirenean, herriko mutiko gehientsuenak eurenaganatu zituzten eta herri-eskolei ikas-

le gutxi geratu zitzaien. Baina 1928an unibertsitateko eraikinean bigarren mailako institutua jarri zelako, maristek Oñatitik alde egin behar izan zuten.

Beraz, premiak eraginda, **piztualdia eduki zuen eskola publikoak gerra aurtxoko zazpi-zortzi urte haietan**. Santa Marinan eta herriko beste hainbat tokitan ikasgelak moldatu behar izan zituzten berrehun bat mutikoentzat. Bitxiena zera izan zen: larrialdi hartan udalak hitzarmen bat sinatu zuela **Oñatiko kanonigo laterandarrekin mutikoen herri-eskoletako irakasle izan zitezen, maisu nazionalekin batera**. Eskolak publikoak izaten jarraitzen zuten, noski, eta erlijioso agustinoek udal maisu titulua zeukaten.

Laster iritsi zen II. Errepublikak (1931), baina irakaskuntzak bere horretan segitu zuen Oñatin. Dena den, gobernuaren aginduz **santokristoak**, gurutzeak alegia, **eskoletako hormetatik desagertu** zirenean eta mutikoek **irakasle laterandarrak** egun batetik bestera **habitorik gabe**, paisanoz jantzita, ikasgelan ikusi zituztenean, ezusteko galanta hartu zuten ikasleek nahiz guraso batzuek. **Bizente Meababasterretxea** bizkaitarra izan zen Santa Marinan irakasten jardundako maisu laterandar horietako bat.

**Gerra madarikatuak**, ordea, **hankaz gora ipini zuen** lehen mailako irakaskuntzaren eta eskola publikoen antolamendu kurioso hura. Agintari militarrek 1936ko udazkenean herrian sartu ahalaz bat, galbahetik pasatu zituzten funtzionario publiko denak eta horietako **asko lanik gabe gelditu ziren**, **agustino-irakasle guztiak besteak beste**; euskaltzaleegiak omen. Atzerrira alde egin behar izan zuten, hemen ez baitzen haientzat giro. Ingalaterrara eta Frantziara jo zuten lehendabizi, Argentinara geroago.

Zenbait hilabete batere eskola barik egon ondoren eta behin behineko maisu batzuekin aritu eta gero, mutikoen arazoari nolabaiteko konponbidea emateko, **gerra amaitzean, maristak ekarri zituzten berriro unibertsitate zaharrera**, handik institutua ere kendu egin baitzuten 1936an. Horrenbestez, **Santa Marinako eskola publikoa oso ikasle gutxirekin geratu zen**



Santa Marinako herri-eskola 1966 aurretik.



Milagrosa ikastetxea 1969an.

atzera; guk horrela ezagutu genuen urte askoan. Garai hartan udal bandak ere erabili zuten hango lokal bat entseguak egiteko eta musikari berriak prestatzeko, **Antonino Ibarrondoren** ardurapean. Herri-hizkeran *txaranga* esaten zitzaion musika-eskola hari.

Herri-eskolatarako 1864-1865ean jasotako eraikuntza horrek **aldakuntza nabarmenak** izan zituen **ehun bat urte geroago**: erlijioso maristek 1963an Oñatin irakasteari berriz utzi behar izan ziotenean, plaza nagusiko azoka gaineko eskola handitzea erabaki zen; maristetan nahiz Santa Marinan zebiltzan mutiko gehienak ikastetxe berri horretara aldatu ziren. Bestalde, herriko ospitalea 1966an eraitsi zenean, bertan karitateko monjek aspalditik zeukaten neskontzako *Milagrosa* kolegioari hutsik zegoen Santa Marinako eskolan bilatu zioten kokalekua, orduko udalarekin tratu bat egin ondoren. Hartarako pisu bat gehitu zitzaion jatorrizko eraikinari 1967 aldera.

Geroztik ere beste **mudantza sakon batzuk** izan dira ikastetxe horretan, trantsizio-garaitik aurrera bereziki. Oñatiko nesken kolegio erlijioso biek (karitateko mojen *Milagrosa* eta beneditarren *Santa Eskolastika*) bat egitea erabaki zutenean, **bestelako norabidea** hartu zuten Santa Marinako eskola horrek ere: ordura arte erdara hutsean ematen zen irakaskuntza **pixkanaka euskaldunduz joan zen**; ikastetxe erlijiosoan izanik ere, urte gutxiren buruan **maisu-maistrak sekularrak bilakatu ziren**; **ize-na ere aldatu** zuten, *Mikel Aozaraza* lehenik eta *Elkar Hezi* geroago; lehenagotik hasiak ziren **ikasketak neska-mutilei** batera ematen; eraikinari dagokionez, **bigarren pisu bat jaso** ziotela adierazi behar da; hasierako arkitektura-elementu bakan batzuk soilik gordetzen ditu fatxadaren goiko aldean.

## ITURRIA

Santa Marinako plazaren **beste ezaugarri nagusi** bat erdi-erdian duen **iturri ederra** da. Aurretik ere beste bat egon ei zen. Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate* liburuan dioskunez, **XIX. mendearen lehen urteetan** Iturritxon, San Anton plazatxoan eta **Santa Marinan** iturriak jarri ziren Aloña-azpiko Antzuabarreko iturburutik ekarritako urekin. Lehentxeago San Migel parrokiako kanpandorre berria nahiz herriko udaletxe dotorea proiektatu zituen Manuel Martin Karrera arkitekto beasaindarrak moldatuak ziren hartarako planoak.

Baina gaur egun **ikus dezakegun iturria XIX. gizaldi horretako bukaera** aldekoa da. Beste atal batzuetan adierazi dugu Oñatiko kale-gunean **iturri monumental batzuk** jartzeko egitasmoa Juan Karlos Alzaa alkateak 1880-1882an gauzatu zuela. San-

ta Marinako hau ere orduan ipini zen. Bost **iturri horien zirriborroak Kasto Zabala eta Pedro Jose Astarbe** bizkaitarrek **marraztu zituzten**; bi arkitekto hauek hilerri berriko kapera neoklasikoa burutu zuten orduantxe; eta Astarbek kanonigo laterandarren komentua eta eliza neogotikoa geroxeago.

**Iturrioinarria eta gorputzaren zati bat hareharrizkoak** egitea erabaki zen eta **irudiak burdinazkoak**. Burdin lanak Parisetik ekialderantz dagoen **Sommevoire** herriko **A. Durenne** enpresan moldatu ziren. Santa Marinako honek **harrizko aska borobil handia** dauka eta **erdiko gorputz guztia burdinazkoa**. Aska beheko alde guztiaren jabe da; askaren erditik gora burdinazko zutabe moduko bat altxatzen da, goiko partean **gurutze latinoaren itxura** hartzen duelarik.

**Gurutzea hiru emakumeren imajinek** inguratzen dute, **bertute teologalak** irudikatzen dituztenak, **hots, fedea, esperantza eta karitatea**. **Bakoitzak bere ikurra** darama aldean ezaugarritzat: **sinesmenak** edo **fedea gurutzea**; **itxaropenak** edo **esperantzak aingura**; eta **maitasunak** edo **karitateak bihotza**. Irudi hauen azpian **lau aingerutxoren buruak** ageri dira, aho zabalik; **dirudienez, hasieran ahotxo horietatik kanporatzen** ziren iturriaren ur-txorrotak. Hau eta Iturritxokoa bakarrik dira **elementu apaingarrien artean** gai erlijiosoak erakusten dituztenak: **Iturritxon Arantzazuko Ama Birjinaren irudia** ageri da eta **Santa Marinan aipatu berri** ditugunak.



*Santa Marinako iturria, 1880.*

K. Zabala eta P. J. Astarberen marrazkia.

**IBURRUST**  
TABERNA • JATETXEA  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

# Santa Marina (IV)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

**S**anta Marina plazaren beste ezaugarri nabarmenetako bat ere adierazi gura genuke gaurkoan: bertan kokatu izan dela aspalditik Oñatiko **ganadu-azoka**, alegia. Azken hamarkada hauetan asko aldatu baldin bada ere, duela gutxira arte garrantzi handia eduki zuen eta era aipagarrian eragin zien herriko bizimodu eta ekonomiari.

## SANTA MARINAKO FERIA-LEKUA

Herriko barazki, fruitu eta baserriko beste hainbat produkturen merkatuak beheko plaza nagusiaren inguruan eduki zuen bere kokalekua azoka-egunetan; kanpoan luzaroen, eta estalitako eraikinean XX. mendetik aurrera. **Ganadu-feriak**, aldiz, **goiko plazan izaten ziren, Santa Marina aldean**. Oñatin, mendeetan zehar, nekazaritzaren barruan **abeltzaintzak maila eta ekoizpen inportanteak lortu zituen**. Kontuan izan, gure herriko lursail zabaletan hamabost auzo historiko nekazari-girokoak genituela; lauhun baserritik gora zeudela berauetan; eta herri-kaskoan ere berrogeita hamar kale-baserri baino gehiago egon zirela.

Horrek, jakina, mota askotako **etxe-abereen premia** zekarren: zaldiak, mandoak eta astoak **garraiorako**; idiak eta behiak **garraio nahiz soro-lanetarako**; zenbait baserriar itzain gisa ere aritzen ziren, hots, **karretero** moduan; guk geuk ezagutu ditugu horietako batzuk idi-pare dotoreekin basozereginetan edota **ikatz-karriuan**; behiak **esnetarako** eta **umegintzarako** erabiltzen ziren, batez ere; **haragitarako** txahalak (zekorrak eta bigak) ziren estimatuenak, baina beste ganadu handien (idi, behi, zezen eta abarren) okelak ere jaten ziren, zaldiena askoz gutxiago; esan gabe doa animalia txikiagoek ere funtsezko inportantzia zeukatela baserriar nahiz kaletarren elikaduran: zerriek, bildotsek, antxumeek, ardiek, untziek, oilaskoek...

## OHIKO FERIAK

Beraz, hainbeste baserri zuen Oñati bezalako herri hazi batean, **derrigorrezkoa** zen abere-produktu horien salerosketarako **feria egoki bat antolatzea**. Aurretik ere moldatuko ziren ziur asko nola edo hala, baina Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate*

monografian eskaintzen digun **lehen data 1758koa da**. Ordukoa dugu arlo hau arautuko duen errege-erabakia, gure herrian **ostiralero merkatu librea bideratzeko oinarriak ezarriz**. Aste-roko azoka horretan klase guztietako aleak, pentsuak, ganadu larriak nahiz txikiak eta beste hainbat jenero zilegizko saldu eta erosten ziren libreki eta inolako zerga barik.

Alabaina, hasierako hamarkadetan feriak hartu zuen abiada eta indarra motelduz joan zela ematen du; XVIII. mendetik XIX.era pasabidean suertatu ziren gertaera gatazkatsuen eraginez, agian. Ondorioz, **1801ean, ganadu-azoka astero egin beharrean, hilean behin soilik eratzea erabaki zen**, hau da, hila-ren lehenengo **egubaikotzean**. Eta gezurra badirudi ere, orduko proposamen hark berrehun urte pasa irau du, ia oraintsura arte. Egia esan, XIX. gizaldiko gerra eta liskar ugariak ez zioten asko lagunduko ferieren jardunari.

Lehenengo Karlistaldiaren ondoren ere, **1842an, herritar batzuek kinka larrian ikusi zuten ferieren etorkizuna**. Hori nolabait konpontzeko, neurriak har zitzala eskatu zioten udalari. Besteak beste honako hauek: **herriko auzoak lau zati edo esparrutan banatu zituzten**; esparru bakoitzeko **bizilagunek, txandaka, Santa Marinara joan behar zuten zegoen feria-egunetan** eta ordu jakinetan, euren idi-pareekin edo behiekin; agindu hori betetzen ez zuenari hamar errealeko isuna jartzen zitzaion; horren kontrola auzoetako **maioralek** gauzatzen zuten, falta ziren baserriarren berri alkateari jakinaraziz; gainera, idi-probetarako harri bat hondatuta zegoelako, udalaren kontura berria taxutzea eskatu zen.

## FERIA NAGUSIAK

Ostiraletako ohiko feriaz gain, **beste abere-azoka berezi batzuk** ere burutzen ziren urtean zehar. Esaterako, apirilean, **San Jurgi egunez, ganadu-erakusketa** bat antolatzen zen, sari eta guz-



*Eskuman idi-dematarako probalekua Santa Marinako plazan.*

ti. Baina garrantzitsuagoa **San Migeletako feria nagusia** izaten zen. **Astebete irauten zuen** eta era guztietako baserri-produktu eta tresnak ekartzen zituzten bertara salgai herriko eta inguruetako nekazari eta merkatariek: aleak, pentsuak, barazkiak, ganaduak, lan-erremintak eta abar.

Hasiera batean **San Migel Txiki inguruan** (maiatzaren 8an) eratzen baldin bazen ere, sasoi horretan eguraldia euritsua izaten zelako-edo, feria nagusia **udazkeneko San Migeletara** (irailaren 28ra) **aldatzea erabaki zen 1800ean**. Arestian aipatu den legez, zortzi eguneko iraupena izaten zuen, eta pentsatzekoa da **herriko jai nagusien ardatz** bihurtuko zela feria bera, haren inguruan pilota-partiduak, dantzak, zezenak eta beste ikuskizun batzuk eratzen zirelarik. Iruñeko San Ferminak ere horrelaxe hasi omen ziren.

San Migeletako feria horietan **ganadu eta animalia hobere-  
nentzako sariak** jarri zituen herriko kontzejuak 1878tik aurrera; nola edo hala, gaur egunera arte heldu zaigu ohitura hori. Hasiera hartan behi, idisko, bigantxa, ahari, ardi, txerri, oilar nahiz artaburu-sorta onenen jabeek eskuratzen zituzten premioak dirutan. Urte askoan *Errosarixoko Bixamon* egunez ezagutu genituen antzeko sariketak Santa Marinan. Trantsizio-garaian *Herri Eguna* ospatzen hasi zenean, unibertsitate aurrera eta inguruetara etorri zen, arrakasta handiz, baserriko produktuen feria hori.

## FERIA-EGUNETAKO GIROA

Oñatiko baserriarrentzat *ferixa-eguna* handia eta sakratua izaten zen. Hilean behingo jai kuttuna; batzuentzat lanerako edota salerosketarako aukera egokia; beste askorentzat kalera

**hurreratzeko aitzakia polita**: Santa Marinatik bueltatzea egin, lagunekin elkartu, nobedadeak komentatu, eguerdian tabernaren batean bazkaldu edo arratsaldean afari-merienda asmatu; eta egun ederra igaro ondoren, ilunkaran edo gau aldera etxera, berandu samar batzuetan. Hori bai, gizonezkoek bakarrik gozatzten zituzten halako egunak, etxeakoandreak baserria zaintzen geratzen ziren bitartean.

Herriko merkatarientzat, eta batez ere tabernarientzako, oso onuragarriak izaten ziren lehenengo ostiraletako baserriarren juntadizo haiek. Araotz, Uribarri, Murgia, Olabarrieta, Larraña, Urruxola, Zañartu, Txantxilipiztegi eta beste zenbait lekutatik heldutako auzotar gutxi itzuliko zen etxera, **kale-bazkaria** edo *frittadaxoren* egin barik. **Oñatiko taberna-jatetxe asko majo betetzen ziren feria-egunetan**: besteak beste, Zenizero-Urubil, Torre, Diortxuena, Goiko Txurruka-Galizia, Txarriduna, Paulito Etxeberriarena, Bujero-Izarra, Luixena, Ona-Perratzailliena garai batean, eta Antonena eta beste hainbat orainago.

Egia esan, baserrietako bizimodua eta ekonomia aldatu ahal, **feria-giroa ere zeharo apaldu eta ia desagertu egin da Oñatin** eta beste herri gehienetan. **Ganaduak aspalditxo ezkutatuziren Santa Marinatik**; urte batzuetan labrantzarako tresnak eta makinak hartu zuten haien lekua; mintegietako landareak ere ekarri ohi zituzten puska batean bizkaitarrek; baina azkenaldian oso noizbehinka heltzen dira hona lehenengo *egubakoitzetan*. Sasoi bateko testigu gisa, **idi-probetarako harriak geratu zaizkigu Santa Marinan**. Eta horiek ere, behe aldean, Gernikako arbolaren aldamenean, urte-mordoxka bat igaro eta gero bueltatu dira euren jatorrizko lekura, auzotar batzuen ahaleginei esker.



*Idi-probetarako harria eta ganadua lotzeko zutabeak.*




*Santa Marina feria-egun batean.*

**IBURRUST**  
TABERNA • JATETXEA  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA



 Jerardo Elortza  
eta Xabier Zelaia



# OÑATI

**KALERIK**  
-  
**KALE**



## Santa Marina (V)

**Aurreko lau zenbakitan** hamaikaxo kontu eta albiste agertu dizkizuegu Santa Marina aldeko enparantza eta inguruen gainean. Hala ere, gaia ahitzen ez zaigunez, hainbat gauza geratuko dira, derrigorrean, aipatzeko edo behar bezala garatu gabe. Gaurkoan, eta atal honi amaiera emateko, **kale-izen, elkarte, denda** eta bestelako batzuei buruz jardungo dugu.

### KALE-IZENAK

Argituta utzi genuen nondik datorkion auzo honi Santa Marina izena (**Santa Maiña** ahozko hizkeran): plazaburuan 1864ra arte kokatu zen adokazio horretako santari eskaini zitzaion ermitatik, alegia. Plazara datozen kaleak mendeetan zehar **makina bat izen-aldaketa** jasan baldin badute ere, inguru horri **Santa Marina deitu izan diote beti herritarrek**. Dena den, labur ditzagun izendegi horren bilakaera eta gorabeherak:

■ **Jose Moiuia kalea.** Izendapen hori 1896an ezartzen zaio Santa Marinako eremu zabal bati: egungo Moiuia kaleari ez ezik, baita oraingo Lope Agirre kaleari, plazari berari eta Patruie kaleari ere. **Jose Moiuia Lengaranen** omenez ipini zen izen hori, herriari egin zizkion mesedeak eskertu alde. Oraingo Moiuia kale hau **Santa Marinako errebal** moduan bataiatu zuen ofizialki udalak 1859an; J. Moiuia kalea izan zen 1896-1939 bitartean, baina gerra ostean **Mola kalea** bihurtu zen hainbat urtetan, Santa Marina inguruko beste alderdi batzuekin batera. Aurretik, ordea, beste herri-izen bat ere eduki zuen: **Artzainkale**, hain zuzen ere.

■ **Artzainkale.** Sarritxo agertzen da ia zeharo ahaztuta dagoen aipaturiko izen bitxi hau kontzejuko akta eta beste izkribu batzuetan, XVII. gizalditik XIX.aren amaiera bitartean. Santa Marinaren luzapen gisa egituratutako errebala osatzen zuten kale-baserrri batzuek eta artisauen etxeek ezker aldetik: **ultegin, ontzigin, banastagin, jztetxe** eta abarren lantoki eta bizilekuak: **Maletarena, Arrolarena, Ontzigiñarena, Eperretxe, Akelena...**, duela urte batzuk arte zutik iraun zutenak. Izenak berak salatzen duenez, **artzainek izango zuten zirikusirik** kale honekin; euren joan-etorrietan hemen edukiko zituzten, seguruenik, artaldeentzako behin behineko egonleku eta pausalekuak. Eskumako aldean Siervas de María ordenako mojen komentua egon zen XX. mendeko hiruzpalau hamarkadetan, orain Telefonikaren eraikinak okupatzen duen orubean.

■ **Patruie kalea.** Historia luzea eta korapilatsua da kale honen izenarena ere. Dirudenez, XVI. gizaldian-edo **Aros-tegi** zeritzon etxe bat han kokatzen zelako, horrela deitzen ei zitzaion inguru horri ere; baina ez dago horren ziurtasunik. Bestalde, Araoz-Lazarraga leinu oñatiarreko kide batzuek, Indietatik bueltatu zirenean XVI.aren bukaera aldera, hor jaso zuten euren bizitokia, ertzaren bi aldetara familiaren armarrri dotorea jarriz. Gerora **Patruiekua** moduan ezagutu zen etxe handi hori; eta ematen du plaza nagusian **jesuitek zeukaten egoitzaren eta elizaren patrioiak** zirelako bereganatu zutela **“titulu”** hori. Eta hortik datorkio, nonbait, kaleari izena aspalditxotik. Juan Jose Araozek 1891ean saldu zien artean osorik zegoen Patruiekua hainbat herritarri eta orduan moldatuko ziren bertan Zelaia, Aranburu, Maiztegi, Gorrotxategi eta beste familia batzuentzako etxebizitzak.

■ **Mola jeneralaren kalea.** Izen-nahaspilatxo honi Emilio Molaren oroitzapena gorde nahiak gehitu zion beste koska bat. Arestian aurreratu dugunez, gerra zibilaren sorreran eragin erabakigarria izandako militar matxino honi eskaini zitzaion **1939an Santa Marina aldeko eremu osoa**, ordura arteko Moiuia izendapena ordezkatzuz, eta hala jarraitu zuen 1979ra arte. Makina bat oñatiar jaio edo bizi izan da Mola kaleak iruten zuen amaraun horretan. Dena dela, zera ere zehaztu behar da: **Patruie kaleak eta egungo Moiuia kaleak lehentxoago utzi ziotela Mola kalea izateari**, 1960ko hamarkadan, Reyes Korkostegi alkate zela, jatorrizko izen zaharra berreskuratuz. Besteok, esan bezala, 1979an hartu zituzten oraindik ere mantentzen dituzten izenak: bat berria, **Lope Agirre** kalea; eta besteak antzinakoa, hots, **Santa Marina plaza**. Ea noiz arte irauten duten.



Patruie kalea 1960ko hamarkadan.

**DENDAK, TABERNAK, ELKARTEAK ETA ABAR**

Nahiz eta erdiguneko beste kale batzuetan adina ez izan, inguru honetan ere ez dira falta izan merkataritza, ostalaritza eta industria txiki eta bestelako eginkizunetarako lokalak eta lantegitxoak.

■ **Elkartek.** II. Errepublika garaian bi talde politikok edukiko zuten euren egoitza soziala elkarrengandik oso hurrean, oraingo Lope Agirre kalean: **Karlisten Zirkuluak** eta **Errepublikanoen Zentroak**; eta urte gatazkatsu haietan sortu ziren hainbat gorabehera eta liskar euren artean. Errepublikazaleen lokala gerra denboran itxi zuten, baina Karlistarenak frankismoan zehar jarraitu zuen. **Guardia Zibilek** ere handik urrin barik eduki zuten **kuartela**, Kale Zaharrera joan aurretik. Herriko elkarte gastronomiko zaharrenetarikoa bat, **Gure Txoko**, Patrua kalean kokatu zen 1935 eta 2013 bitartean. Azkenaldi honetan, berriz, Antixenekoa jauregiaren aldameneko lokal batean **Gaztetxea** aurkitzen da.

■ **Dendak, tabernak eta beste.** **Pakita altzariak** Santa Marinaran. Diseinuak, **Barue**; eta **Andrea Azkoaga** Baruekoan; **Zelaia elektrizitatea eta etxe-ko-tresnak**, Patrua kalean eta Santa Marinaran; eta orain, azken lokal horretantxe, **Magnet** softwar-produktuak. Emakumeen ileapaindegia Patrua kalean, **Baltzategi ahizpak**, Josefina eta Kontxita, Zirrunkaiñeko etxean, gerra aurreko urteetan; eta Ana Garciaren **Kima** 1. zenbakian. **Tabernak**: gerra aurretik, **Pio Elortzarena** Moiuan (oraingo Lope Agirren); eta gerra ondoren, **Xabalorena** Patrua kalean.

■ **Tailerrak, lantegiak eta abar.** Antzinako errementari, iltzein, ehule, saskigile edota ontzigileez gain, beste era batzuetako lanbideetan gizakume eta emakumeak ere aritu izan dira Santa Marinaran eta inguruko kaleetan. Patrua kaleko

etxe biren izenek horixe adierazten digute, hain zuzen: Zirrunkaiñeetan sasoi batean **zirrunkari** bat arituko zen, hots, gurdientzako txirringak, gurpilak egiten zituena; eta Mielkapañeetan, berriz, **kapagin** bat, hau da, marragak, ganadu-mantak ehuntzen zituena.

Orduko Moiuia kaleko lehen zatian, jatorrizko **Barrenzelaineko zerra** egon zen, gero Ibarrara eramane zutena. Kale horretako 1ean Barrena etxea berri zutenean 1933an, **Luis Rodríguez Bareak inprenta** jarri zuen beheko solairuan eta, gudatean konfiskatuta egon ondoren, haren seme-alabek eman zioten jarraipena gerra ostean. Aurreko etxean **gaseosa** egiteko tailerra zeukaten **Iraolatarrek (Txapa)**.

**Arotz ugarik** jardun zuen Barueko etxepean, 1943an San Juan kaletik Santa Marinarara etorrita: **Pio Elortza**, **Karlos Arregi**, **Joxe Arregi**, **Migel Elortza**, **Rufino Moiuia** eta **Zerferino Ugartek**, elkarrekin hasieran, bananduta geroago; eta horiekin batera edota ondoren beste askok. Patrua kalean **Ezpeleta aterkin-fabrika** egon zen 1935etik aurrera, Garibai auzora joan aurretik; Arrazola-Ezpeleta gisa hasieran. **Zesareo Uribarriren sarraila-enpresa** ere kale bereko lokaltxo batean jaio zen, Altzibar aldera aldatu baino lehen. Patrua etxean bertan eduki zuten **perratokia Paulo eta Basilio Biain** aita-semeak XX. mende gehienera. Hurrengo atean **nekazaritzarako tresnak eta makinak** konpontzen dituzte **Maiztegitarrak**.



Errepublikanoen Zentroa eta Pio Elortzaren jatetxea aipatzen dira 1934ko orri honetan.



Arotzen tailerrak egondako lekua Baruekuan.

**GURRUST**  
TABERNA • JATETXEA  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

